

UDAL-BATZARRA 1/02

UDAL-BATZARRAK, 2002ko URTARRILAREN 31ean EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA

Jose M^a Sarasola Goenaga

ZINEGOTZIAK

Pedro M^a Peñagarikano Labaka
Miren Maite Aizpuru Etxeberria
Manuel M^a Odriozola Iruretagoiena
Mikel Errazkin Agirrezabala
Jose Ignacio Otermin Garmendia
Mikel Zubillaga Galarraga
Jose Martin Uzkudun Agirre

IDAZKARIA

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETAko Udaletxean, 2002ko urtarrilaren 31ean, arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da ohizkanpoko bilkura egin asmoz Jose M^a Sarasola Goenaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; Rafael Uribarren Axpe zinegotzi jaunak ezin etorria adierazi du egun berean Legebiltzarrean Pleno bat zuelako; eta neu, Nekane Agirresarobe Etxeberria, idazkaria.

Bilkurari hasiera eman aurretik, EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Otermin zinegotziak ongi etorria eman dio alkate jaunari.

Previo a comenzar la sesión el Concejal-Portavoz de la coalición EAJ-PNV/EA Sr. Otermin, da la bienvenida al Sr. Alcalde.

1.- ALKATETZAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA:

- **2001 urteko 456 zenbakitik 479 zenbakira**
- **2002 urteko 1 zenbakitik 39 zenbakira**

Alkatea partaideei zuzendu da eta puntu honetan, azken plenotik hona egindako dekretuen berri eman behar dela adierazi du. Hauetako dekretu batzuk iazkoak direnez Periko Peñagarikano jarduneko alkateak aginduak izan direla, eta gainerakoak berak aginduak. Norbaitek ezer esatekorik baduen galdetu du.

EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramailea den Otermin zinegotziak dekretu batzuei buruzko galdera egin du. Suteen aseguruaren adjudikazioari buruzko dekretua (3. zkia.

du) eta erantzunkizun zibileko aseguruaren adjudikazioari buruzko dekretua (4. zkia. du), batean garestiena eta bestean berriz merkeena hartu dela eta ea zergatik egin den horrela.

Alkate jaunak erantzun dio, iraileko ekintzen ondorioz erantzunkizun zibileko aseguruak asko igo zirela, lehen 80.000 pta. inguru ordaintzen zela eta bostehun mila inguruko faktura pasa zutela aurtengoan. Igoera oso haundia zenez, hiru hilabeteko poliza egiteko eskaera egin zitzaiola Baskiberri baina honek ezezkoa eman zuela, poliza urtekoa behar zuela erantzunez. Orduan Bikabirekin kontaktatu eta eskeintza bat aurkezteko eskaera egin zitzaiola. Bikabik Ocasorena aurkeztu zuela eta zerbitzu berdinarengatik merkeena zela. Garai berdintsuan Suteen aseguruak kadukatu zela eta Bikabiri ere oferta eskatu zitzaiola. Kasu honetan, Bikabik aurkeztutako Ocasoren aseguruak Baskiberri baina garestiagoa zela baina fondoak eguneratuagoa zegoela. Baskiberri prezioak aktualizatuagoak ekartzeko eskatu zitzaiola eta berehala ezin zuela eta itzaroten egon ondoren, ez zutela aurkeztu. Biak ikusita, Baskiberri garestiagoa aterako zela pentsatu zela.

Horrela gertatu zela guztia, bapatean; hala ere, aseguru poliza hauen adjudikazioarekin konkurtsoa egin nahi dela. Aurtengoa horrela egin dela baina datorren urtean, base batzuk atera eta formalki adjudikatzea pentsatzen duela.

Ondoren, Otermin Zinegotziak, zabor bilketako adjudikazioaren dekretuari buruz (13. zkia.) adierazi du, konkurtsoa aterako zela komentatu zela lehen.

Alkateak adierazi dio, Tolosaldeako herri guztiak mankomunitatearen bidez bilketa koordinatua egiteko proposamena aztertzen ari direla. Finantziaketarekin herri txikiak ados daudela baina herri haundixeagoei zerbait garestiago ateratzen zaielako eztabaidan daudela, banaketa biztanle kopuruaren arabera egiten denez. Hala ere, ez daudela ezezkoan, baina zaborrak orain Sasietara eramane behar direnez, prezioa igo egingo dela.... gaia mahai gainean dagoela.

Jarraian, Otermin Zinegotziak, Yogako kontratazioari buruzko dekretuarena (22. zkia.) komentatu du. Konkurtsorik ez al den egin behar galdetu du.

Alkateak erantzun dio, bere ustez ere horrela egin beharko litzatekeela baina kurtso hasiera iristen denean, jendea zai... eta beti egoera berdinean aurkitzen direla.

Segidan Otermin jaunak ARAUDIren fakturari buruzko dekretua (35. zkia. du) aipatu du. Dirudienez dokumentazioa falta dela.

EH talde politikoko Zinegotzia den Peñagarikano jaunak adierazi du, dokumentazio gehiena ofizinan dagoela, beste batzuk kontsulta propiorako alkateak berak eskatutakoak direla. Idazkari-Kontuhartzailearen txostenean aipatzen diren

dokumentuak, herri irakaskuntzako pertsonalari buruzko txostena, diskette batean dagoela.... denak hemen daudela. Batzuk kontsulta propiorako erabili direla, erabaki batzuk hartzeko... eta hauek Araudik posta elektronikoz bidaltzen dituztela. Komisioei buruz ere beste bat bidaliko dutela.

Idazkari-Kontuhartzaileak adierazi du, berak txostena egin zuela espedientean dokumentu hauek ez direlako ageri eta dokumentu horiek idazkaritzan egon behar dutela ulertzen duela.

2.- UDAL ARKITEKTO TEKNIKOAREN DEDIKAZIO ALDAKETA.

Alkate Jaunak partaideei adierazi die, aparejadorearen dedikazioaren aldaketa proposatu dela euskerako plangintzaren barruan sartzen delako.

EAJ-EAJ/PNV koalizioko bozeramailea den OTERMIN jaunak proposamena zein den galdetu du.

Cultura Batzordeko Zinegotzia den ERRAZKIN jaunak azaldu du,, euskararen plana Udaletxean onartu zenean, bertako puntuetako bat aparejadoreari eskatzen zaion hizkuntza eskakizuna lortzeko baliabideak jartzea zela. Aurreko deialdian 2. hizkuntz eskakizuna lortzeko aurkeztu zela eta gainditu egin zuela; 3. hitzkuntz eskakizuna eskatzen zaionez, Udalak euskaltegian matrikulatu zuela. Egunero bi orduz joaten dela euskaltegira, astean 10 ordu. Beraz, euskarako planak jartzen duen bésala, dagokion hizkuntza eskakizuna lortzeko, dedikazioa 10 ordu astean haunditzea proposatzen dela .

Andres Oyarbide udal-aparejadoreak gaur egun %27ko dedikazioa duela eta astean 10 orduz lan egiten duela kontutan harturik.

Aipatu aparejadorea 2001eko urriaren 1etik 2002ko ekainaren 21 arte (biak barne) irauten duen euskerako ikastarora joan dadin dedikazioa 10 orduz haunditzeko egin den proposamena entzunik.

Partaideek honakoa erabaki dute aho batez:

Lehenik: udaleko aparejadorea den Andres Oyarbide jaunaren lanordu kopurua astean

Considerando que el aparejador municipal D. Andres Oyarbide tiene en la actualidad una dedicación del 27%, con una jornada de 10 horas semanales.

Oída la propuesta de aumento de dedicación consistente en 10 horas semanales con motivo de su incorporación a un curso de euskaldunización. Curso que inició el pasado 1 de octubre hasta el 21 de junio de 2002, ambos inclusive.

Ante ello, se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero: Aumentar la jornada laboral del aparejador municipal D. Andres Oyarbide,

10 orduz haunditzea, eta ondorioz, dedikazioa %54ean finkatzea, astean 20 orduko lan-jardunaz.

Bigarrenik: Aurreko erabakia atzeraeraginez aplikatzea, 2001eko urriaren 1etik 2002ko ekainaren 21 arte, biak barne.

en 10 horas semanales, quedando en consecuencia, con una dedicación del 54% y una jornada de 20 horas semanales.

Segundo: Aplicar el precedente acuerdo con carácter retroactivo a 1 de octubre de 2001 hasta el 21 de junio de 2002, ambos inclusive.

3.- ABIADURA HAUNDIKO TRENAREN PROIEKTUA DELA ETA, DIRULAGUNTZA.

Ikusirik, Abiadura Haundiko Trenaren (AHT) edo "Y" proiektuaren aurka tartekaturiko errekursoetarako behar izango den laguntza teknikoa eta juridikoak sortuko dituen gastuei aurre egiteko Elorriko Udala eta Anoetako Udalaren arteko komenio-proposamena.

Vista la propuesta de convenio entre el Ayuntamiento de Elorrio y el Ayuntamiento de Anoeta para la financiación de gastos que se han generado y puedan generarse con acciones jurídico-técnicas en contra del Proyecto del Tren de Alta Velocidad (TAV) ó "Y" Vasca, aprobado.

Alkate jaunak Kultura Batzordeko Presidente den Odriozola jaunari eman dio hitza.

Odriozola Zinegotziak partaideei adierazi die, pasa den urte hasieratik aurrera AHTren aurka elkarlan bat sortu zela, Juridikoki 14 Udaletxe hasi zirela helegiteak aurkezten Espainiako Entzutegi Nazionalean, Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusian eta Europan ere. Lan hori aurrera eramateko BAKEAZekin kontratu bat egin zela Elorrioko Udaletxean eta orain, gainontzeko Udalek ere gastu horretan parte hartzea nahi dutelako hitzarmen hau proposatzen dela.

EAJ-PNV/EA talde politikoko bozeramailea den Otermin Zinegotziak esan du, gai hau pleno askotan tratatu dela eta bere taldearen jarrera sarritan azaldu dutela. Horregatik, ez dituela berriro azalpenak errepikatuko, lehen esandakoa berretsi egiten duela. Eta beraz, bere taldeak komenio honen aurkako jarrera hartuko duela.

Hau honela izanik, Alkate-Lehendakari jaunak komenio-proposamena

Ante éllo, el Sr. Alcalde-Presidente somete a votación la propuesta de

botutara jarri du eta honako emaitza suertatu da:	convenio presentada, obteniendo el siguiente resultado:
Aldeko botuak: BOST (EH talde politikoa)	Votos a favor : CINCO (grupo polít. EH)
Aurkako botuak: HIRU (EA-EAJ/PNV koaliziokoa)	Votos en contra: TRES (coalición EA-EAJ/PNV)
Abstentzioak: BATERE	Abstenciones: NINGUNA
Eta bozketan suertaturiko emaitzaren ondorioz, honakoa erabaki da:	Por lo que a la vista del resultado obtenido en la votación, se acuerda:
<u>Lehenik</u> : Proposatutako komenio-zirriborroa, akta honen I. Eranskina onestea.	<u>Primero</u> : Aprobar el borrador de convenio propuesto, cuya copia se adjunta como Anexo I a la presente acta.
<u>Bigarrenik</u> : Jose M ^a Sarasola Goenaga Alkate-Lehendakari jaunak Udalaren izen eta ordezkari gisa aipaturiko Komenioa sinatu dezala gaitasuna ematea.	<u>Segundo</u> : Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Jose M ^a Sarasola Goenaga, para que en nombre y representación de este Ayuntamiento suscriba el susodicho Convenio.
<u>Hirugarrenik</u> : Elorrioko Udalaren alde 901,52 euro (150.000 pezeta) ordaintzeko agindua ematea, aurreko atalean onartu den Komenio-zirriborroan adierazi bezala.	<u>Tercero</u> : Ordenar el pago de 901,52 € (150.000 pts.) a favor del Ayuntamiento de Elorrio, según se especifica en el borrador del Convenio aprobado en el precedente acuerdo.

4.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUARI BURUZKO PROPOSAMENA

Alkate jaunak, Gizarte Ongizate Batzordeko Presidentea den Maite Aizpurua Zinegotzi andereari eman dio hitza.

Aizpurua andereak, Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak 2001eko abenduaren 4ean egindako bileran emandako honako diktamena irakurri du:

4.- LEHENAGOKO AKORDIOAK

4.1.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Ikusirik gaurregungo eskaera berrien akordioak garai bateko akordioek nolabait baldintzatutako direla. Batzordeak honako hau proposatzen dio plenoari:

Anoetarako Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuko Arautegia osatu bitartean - eskumen banaketa erabat zehaztu arte ez da egingo-

} 1985eko maiatzaren 30eko 18. puntuan onartutakoa	INDARGABETZEA
} beste akordiorik balego	

Indarrean geratuko litzatekena Etxez Etxeko Laguntzako finantziak eta ordenantzatan agertzen diren gehieneko orduak: astean gehienez 10 ordu, egoera berezietan Batzordeak hala onartuz gero: 12.”

Hau honela izanik, Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen diktamena, proposatu bezala onartzea erabaki dute aho batez partaideek.	Ante éllo, se acuerda por unanimidad de los reunidos aprobar el dictamen de la Comisión Informativa de Bienestar Social, en los términos presentados.
---	---

5.- JAVIER SARASA AMEZTOY LANGILEARI BURUZKO SENTENTZIAREN BERRI EMATEA.

Alkate jaunak partaideei adierazi die, Javier Sarasa Amezttoy langileari buruzko sententziaren berri eman behar dela puntu honetan. Sententziak Udalari eman diola arrazoia baina hori ez duela onartzen berak, errekurritu egin duela eta bidean dagoela.

Udalbatza, Donostiako 3. Lan Epaitegiak emandako 573/01 sententziaren jakinaren gain geratu da, “NIG 20.05.4-01/002288, nº de autos: Social Ordinario 535/01, Demandante: Javier Sarasa Amezttoy, Demandado: Ayuntamiento de Anoeta”. Sententziak honela dio:	La Corporación se da por enterada del fallo dictado en la sentencia 573/01 por el Juzgado de lo Social nº3 de Donostia, NIG 20.05.4-01/002288, nº de autos: Social Ordinario 535/01, Demandante: Javier Sarasa Amezttoy, Demandado: Ayuntamiento de Anoeta; que dice como sigue:
---	--

“Que apreciando de oficio la falta de acción, debo absolver y absuelvo al demandado AYUNTAMIENTO DE ANOETA de todos los pedimentos de la demanda interpuesta por D. JAVIER SARASA AMEZTOY”

6.- ANOETAKO UDALAK “NAZIOTASUN AITORMENA BIDERATZEKO ARAUDIAREN ONARPENA”RI BURUZ 2001-04-26EAN HARTURIKO ERABAKIA KAUTELAZ ETETEA AGINDUZ, AUZITEGI NAGUSIAK BIDALITAKO IDATZIAREN BERRI EMATEA.

Anoetako Udalak
“EUSKAL NAN” delakoa egitea onartuz
2001eko apirilaren 26ean hartutako
erabakiaren aurka Euskal Herriko Auzitegi
Nagusiako Administrazioarekiko
Auzietako Salak, 1. Sekzioa, IZO: 00.01.3-
01/001710, emandako autoaren jakinarenean
gain geratu da Udalbatza. Erabakiak
honela dio:

“Estatuko abokatuak hala eskatuta,
Anoetako Udalaren 01-04-26ko erabakia
kautelaz etetea agintzen da. Udalaren
erabaki hori euskal nazionalitatearen
deklarazioa izapidetzeko araudia onartzeko
hartu zen. Kostuak ez zaizkio inongo
alderdiri ezarriko.”

La Corporación se da por enterada
del auto dictado por el Tribunal Superior
de Justicia del País Vasco, Sala de lo
Contencioso-Administrativo, sección 1ª,
NIG: 00.01.3-01/001710 contra el acuerdo
adoptado por el Pleno Municipal de
Anoeta, de fecha 26 de abril de 2001,
relativo a la aprobación de la expedición
del denominado “DNI VASCO” que dice
como sigue:

“Decretar a instancia de la Abogacía del
Estado, la suspensión cautelar del acuerdo
de 26-04-01 del AYTO. de Anoeta sobre
aprobación de la normativa para tramitar la
declaración de nacionalidad, sin hacer
imposición de costas.”

Eta beste aztergairik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura
arratsaldeko zortzirak bost minutu gutxiago ordu direnean.